

(V)

JUAN de HUARTE. ! 2^a

Uharte, Doniane Garazi-tik (ez dakigu nola eta zer in-guruz) yuan zen Huesca-ko hirirat, Aragonen, eta diotenez, medikuntza han ikasirik, eskol-nausian erakasle izendatu omen zuten. Bainan berri hok ilhunskoak dire.

Denbora hartan, Baeza, Andalucia-ko hirian, izurrite izigarri batek yendeak xahutzen³ zituen, eta neholere kotsuaren hedadura etzezaketen garhaitu edo atxiki bere zedarrrietan⁴ eta bazter guzietarat berduratzenten⁵ zen herioa sarraski⁶ haundiak eginik.

Ordian Spainiako erregeak erabaki zuen harat igortzea mediku aiphatuena, eta hautatu egin zuen gure yakhintsuak.

Eta Uhartek, egin ahalak eginik, emeki emeki eritasunak handu zituen, eta azkenian hiria izurritetik garbitu.

Linares-eko hirian hil omen zen, eta diote hango eliza batian ehortzia dela, nahiz oraino ez den ori argiki yakina.

Oixtian erran dugun bezala, Uhartek oldozpen eta oharmen sarkhorrok utzi dauzkigu bere liburuan.

Luze, arras luze liteke hemen aiphatzea, lau hitzez ere, ze goresmen eta laudorio haundiak egin dituzten Spainiako eta Europako gizon yakhintsueneak gure Uhartzet.

Bana erran dezagun denek aithortzen dutela bere adimenduaren ohartze zorrotzen ausartasunez eta bere oldozpen eta erakaspen argi eta barnakorregaiak, hiru edo lau ehun urthez aitzinatu zela haren denborako gizonen artekoetik, ez bakarrik Espanian, bana Europa guzian.

Holako gure gizon haundiaz oroitu gira azkenian, uz-kurtasuna inharrosirik. Yuñ den Urrian ospatu dugu Iruñen haren izena. Marañón mediku aiphatua yin zen Madrid-etik Ateneo Navarro delako batasunian mintzaldi eder bat zuen haren ohoretan. Eta geroago, berriki, Doniane Garazin, bere sortlekian, egin dituzte ospe haundiko bestak, harrizko oroitzapen bat eraikirik haren iduriarekin. Tenore zen holako zerbaiteen egitea.

Eta zonbat Nafarroako seme haundi ditugun arrunt ahatziak!

Huna Uharten erran batzu, eskuararat itzultzen ditudanak:

«Yakhintsu liburu irakhurtzeak argitzen du ernearen adimendua, bainan mutzitzen⁷ du gizon ilhunarena».

«Haur phestuntziak⁸ sekula ez du ikhasiko bere amaren altzoan. Yakhitateak derama berekin nekheak eta pairamenak⁹, eta etxetik lekhutu behar da deus onik egiteko».

«Ikhaz zak untsa liburu baten mamia, eta chizala sar liburu anitzetan, adimendua trabatuko zaik. Hazia bota zak ildoan, ez besainka barreatuz¹⁰. Bestenaz, ura saskian bezala litekek».

Zutikin (M. amea Hand)

(I) ELHEKETA: ASTE HUNTAKO ELHEPIDEA

- 1 - Donibaneetik norut joan zen lehenik Huarte?
- 2 - Gero norat oraino eta zorteko?
- 3 - Zer bilhakatu zen eta zer liburu idatzi zesen?

(II) ADITZ IKASKUNTZA-

31. etzezaketen 32. luze liteke

33 erran dezagun 34. derama.

31. UKAN. Potentiel - Imperfekt.

O.S. + radical O.P.

Nik ukān nezaken (je pourrais)	ukān nitzazken (je pourrai)
Hik " hezaken l'avoir	" hitzazken les avoir
Zuk " zinezaken	" zintzazken
Harek " zezaken	" zitzazken
Guk " ginezaken	" quinzazken
Zuek " zinezaketen	" zintzazketen
Heiek " zezaketen etc.	" zitzazketen

32. IZAN. Conditionnel présent.

Ni izan nintek = je serais

Hi " hinetek = tu serais

Zu " zintegke = vous seriez

Hura " liteke = il serait

Gue " gitezke = nous serions

Zuek " zintegkete = vous seriez

Heiek " litegke = ils seraient

33. UKAN. Subjontif-

O.S. O.P.

Nik ukān dezaten (que je l'ai) ukān ditzaten (que je les ai)

Hik " dezaken	" ditzakun / tu aies
---------------	----------------------

Zuk " dezagun	" ditzagun
---------------	------------

Harek " dezan	" ditzan
---------------	----------

Guk " dezagun	" ditzagun
---------------	------------

Zuek " dezaguene	" ditzaguer
------------------	-------------

Heiek " dezaten etc.	" ditzaten etc
----------------------	----------------